

# ZUBEROAKO GOBERNU HIZKUNTZAK ETA GURE HERRI HORTAKO EUSKALKIAREN ERDAL MAILEGUAK

Txomin PEILLEN

Euskara, gure herrietako gobernu hizkuntza ez izatea, mailegu askoren arrazoia izan da, ez bakarrik hauzoko hirur erdara motak, bakoitza bere garaian, administragoako hiztegian gure mintzairari buruzagitzuz, baina gobernu hizkuntza horiek –gaztelania, gaskoina ta frantsesa– beren entzute, itzal ta bigirune handiagoez, beste semantika alorretan sartuz.

Gure Zuberoako mendietan, Basabürüko ibarretan, orain eta lehengo mintzaira ikertuz, beralaxe hirur mota handitako maileguak ikusten ditugu: lehenik euskaraz falta ziren hitzak, eta konzeptu berrien adierazteko, erdarak asmatu hitzak hartzen ditugu, baita Europako hizkuntza handi askoren moduan greko latin etorritziko iturritik ere; bigarrenik gure semantika alorrak erdarazkoen desberdin izaki, itzulpen beharrunea gatik, batzutan, eta erdarak eredu bezala harturik, gehienetan, euskaraz ditugun hitzen erdi-sinonimoak hartzen ditugu, azkenik gaizkia ta gaitziritzia azaldu nahi ditugunean, nahiz mespretxuz, nahiz irri parre eragiteko, hiru hizkuntza horiei ezteigu berdin hitzik mailegatzan, eta esaldirik jasaiten.

Ez zaigu errez diakronia luze eta aberatsaren egitea, gure zuberuera aztertu behar dugunean, XV-XVI mendetako hizkuntza dakarten pastorala zaharrak istudiatzekoak dira oraindik, horregatik gure adibide gehienak, hemezortzi, hemeretzi, hogeigarren mendeetan hartuko ditugu, bestalde mende zaharragoentzat kondairan oinharritu hipotesiak egin beharko zaizkigu.

Badakigu Zuberoaren hastapenean, gure eskualdeak harreman gehienak Naparroarekin zituela eta erresuma hari lotua izan dela; garaiko gobernu hizkuntza, baita komunika hizkuntza era, XII mendearen inguruan Erromantzea izan behar zuen Larrañeiko et Santa Graziko paper zaharrek erakusten dutenetz. Zuberoaz gehiago jakinen dugu, andere ikerlari batek de Souhy, zuberotar aitunen semearen gandik, «Censier gothique de la Soule»

famatuaren mikrofilmatzea kausitu baitu; Dokumento horrek baliman erakutsiko digu Erromantzearen itzala, Zuberoan, zenbateraino hedatu zen.

Halere ez zaigu erreza izango, Erromantze maileguak geroztikako gaztelania jasaipenen gandik bereiztea; hortakoz «Fontes» erako egin dudan lantxo batean, Gonzalo Berzeo-ren obraz baliatu naiz, Zuberoako hitz batzuekin konparaketa egiteko ta psikologia alorrean uzta bat hasi dugu: *arrenküra*, erromantzez «la rencura», *agüdo*, erromantzez «agudo», *asmatü*, err. «asmar», *eskerniatü* err. «escarniar», *sotil*, err. «sotil»; beharbada, berriago dira harreman, administralgoa ta lege hiztegioko beste hauek, oraindik hemezortzigarren mendean erabiltzen zirenak: *absolüto*, *animo*, *asunto*, *hacienda*, *hazaña*, *seguro* (Jüsef Egiategiren obran ta pastoraletan) irakur ditezke baita gure egunetarraino iritxi diren asko: *abogatü* «abogado», *albo(r)otatü* «alborotar», *alto!*, *dilubio* «diluvio» *obra* «obra», *parte* «parte», *pletetatü* «pletetary», *sozio* «socio» eta abar, agian, gaztelaniatik zuzenka hartuak.

Beharbada hamalagarren mendean latina ta erromantzea gobernu hizkuntza bezala erabat galdu ziren Zuberoan, baina komunikabide bezala gaztelaniak jarraitu, zeren XVII.mendetik hogeigarren menderaino, zuberotar eremüts askok ogipidea gaztelania herrietan, Espanian eta Ameriketan bilatzen baitzuten.

Hamasei hamazazpigarren mendeetan zuberotarrak Naparroa erdaldu-neko Erriberarat, «jornaletor» uzta egitera joaiten ziren geroztik Erronkari ta Saraitzu ibarretarat gazta egitera «quesero» bezala, gure egunetarraino; XIX.mendean baita XX.garrenean ere gerlari ta soldadutzari ihesi gazte gehienak Espaniara, nahiz Ameriketara iragaiten ziren, gero politika sistema aldakuntza baten gerizpean Espaniatik Zuberoara itzultzen, azkenik gaztelania ikasteko parada, gaurko artzaiñek, auzoko napparrekin daukate, alboko ibarretan euskara ixildu baita: horregatik, Basabürrian bereziki gaztelaniak gure euskalkia ainitz kutsatu du.

Gaztelaniaren ofizialtasun galtzeak eta Frantziarekin harremanak zabaltzeak, Espaniako hizkuntza hori zuberotarren gogoetan jaitsierazi dute, gaztelania gaur gaizkia ta gaitziritzia aipatzeko asko erabiltzen baitugu. Adibidez, urtean hirur hilabetez Santa Grazi herrian, Basabürrian bizi naiz eta auzo leheneko etxekandereari entzunak bildu ditut; Andere hori, gaztelania ezta-kialarik, herriko gizonen moduan ibiltzen da; gauzak itsusiago, gogorrago agertzeko, gaztelania darabila. Santa Grazi Hardoienean bildu ditudan hitz nabarmenenak: *burro* «jende astoa», *cacharro* «automobila txarrari», *fallo* «fallo handiari», *fracaso* «fracaso handiari», *gancho* «atzapar gaiztoari», *loko*, *loko* «loco» (Larrañen, *erlokho* «el loco») *miedo* «bildur handiari», *veneno* «jende txarrari», *biekbo* «viejo», «haragi zaillari» «okel txarrari» eta abar...

Ez zaigu ahaztu behar, duela hogeitahamar urte, Basabürütarrentzat Naparroan merkatu egiteak balio zuela ta Santa Graztar batentzat askoz errezago zela Arrakoko bentara, 18 kilometru bide egitea eziez eta bide txigorrez Zuberoako Atarratzerra joaitea, merkatu egitera. Ondorio bezala

Basabürü tarren birau, juramentu eta «elhe gaixto», gehienak gaztelaniaz dira; gizon bakoitzak berea edukiz, Beren birauetatik izengoitiak ematen diozkate, hala nola «la virgen», «la puta»; beraz gaztelania gauza itsusiak esateko erabiltzen badugu ez dut ez irakurri, ez entzun parre eragiteko erabilkerarik.

*Bigarren gobernu hizkuntza* Züberoan, gaskoin zaharra izan da, gehienetan Baionakoa, XVI.mendean frantsesak Euskal Herrian lekua hartu arte. Halaxe psikologiazko berba frango gaskoinezkoak ditugu: *aillart* «pizkor, erne», *arrabeiñ* «erdotz, garbi», *abill, adret* «antzetsu», *funts* «izantz, izate», *hardit* «bizi, pizkor», hitz horiek ez dituzte euskal hitzak galerazi, baina esaldiari indar gehiago eman dezakete. Parte txarrean da gehienik gaskoina erabiltzen, halaber bearnesa. Ez ote da ofizialtasun galtzetik ekarri dion jenden artean sortu mespretxua; ez ote dute frantsesek «patois» bat dela, denen gogoan luzaro eraduki? Gaiztzespen hitzak ainitz dira: *arrunt* «vulgar», «llarri» *arrabuhin* «imur gaixto» «gogo txarreko», *aujame* «jenio itsusia», *babest* «molde gaitz», *briu* «mozkor», *debeatü* «aspertu, nozitu», *gormant* «jale handi», *greügarri* «nazkagarri», *kauke* «beti eske, bizkarroi» *krepaut* «apo», *injeminas* «odol gaitzeko», *malet* «maltzur» *mali* «zozo, lelo», *ments* erdi nahasia», *menüx* «bürü mehe», *perfüdius* «aharrari, borrokari», *pergüt* «oñazez betea», *pek* «ero» «ertzoz», *talabahüt* «zarata egile, nerbioso».

Azken urteetan bearnes ta gaskoinak gure herrian asko galdu du; gazteek ez dituzte gehiago ulertzen: *aillart, arrabeiñ, perfüdius, pergüt, arrabuhin, talabahüt*.

Bestalde, beharbada, ofizialtasun galtzea lagun eta baliman ere, e uskal-dun gazte asko nekazari morrointzan Biarnon ibiltzearekin, bearnes ta gaskoinezko birauak ere sartu zaizkigu, Züberoan – gehiago agian *Pettarrean*; halakoak dira: *Diü Biban! per Diü! hilh de puto!* eta abar. Bearnesa antziña; komunikabidea izanik, Züberoan espreziobide bihurtu da, bereziki parre eragiteko irri eginarazteko erabiltzen baitugu; nahiz eguneroko hizkeran, nahiz Ihautiriko maskaradetan, nahiz asto-laster izeneko komedia pastorale-tan, entzuleek aurretik dakite bearnesa entzutean egoera parregarrian sartzen dela antzerki ekintza. Egiatzko buhamiak ala maskaradetakoak izanik ere, bearnesez mintzatzen dituzu, eta buhamien, ijitoen kantuan errepikak dio: *lou peyrouton, lou peyroutoun, lou praube peyrouton*.

Mende hunen haseran, hastapenean, gazteek uler ez zezaten, handiek, beren artean bearnesa zerabilaten: halaxe egiten zuten gure Dordorragako aiton-amonek, Oloronen egondakoak baitziren; halere aitak eta osabek laster bearnes apur bat ikasi zuten. Etxahunen obra, hain zuzen «Ama alhaben» kantuan, haurrak entzuten ditu jendeak esaten: «toun pay qu'ey toun payre», *hire aita, hire aitapontekoa dun*» aurrak ez ulertzen. Aski ta naikoa bearnesaz.

Hirugarren eta azken gobernu hizkuntza Züberoan, gaur, frantsesa dugu, ustegabeen joskera, egitura, semantika alor bezala eredutzat hartzen da. Esate

baterako ipuin asko daude frantsesa gaizki hitzegiten dutenez trufatzeko, eta euskaraz gaizki hitzegiten dutenen ipuinak pixkanaka galtzen dira. Gaizkiaren hitzegian ezta frantses asko mailegutzen, soldadutzatik gizonek ekarri «elhe gaixtoez» kanpo, izan ditezen hiru nahiz bost letratako hitz horiek, guti dira, frantsesak gehienik kutsatu duen hiztegia, psikologiak kanpo, ta eguneroko teknikaz kanpo senide hiztegia izan da.

Senidetasunaren hiztegiak esanen duguna, Santa Grazin entzundakoa da, baina Zuberoa guziko guti ala asko balio du. Askazgoa hiztegiari, euskaldun familietan erabiltzen eta salbatu diren hitzak: *anaie, arreba, abizpa, albaba, seme*, dira; alegia norbaiti zuzentzean gutiago erabiltzen direnak; bigarren egoera batean arki genetzazke, norbaiti zuzentzean asko erabiltzen direnak, eta geroago ta gehiago frantsesez entzuten direnak: *papa, mama, tonton*, (osaba), *taty* (izeba) *papy* (aitona) *mamy* (amona) Horrelako esaldi bitxiak entzun ditzaketzue:

*Errozü, mami'i eztügüla haren beharrik*

*Papa ta taty ikhusiko düütüzü; Tontonk eman ditazü*

Hirugarren egoera da osoki ahaztu diren euskal hitzena: izeba-ren ordezt, *santa* (XVIII. mendea danik) amagiharreba-ren ordezt, *belle-mere-a* (duela berrogeitahamar urte) aitagiharreba-ren ordezt, *beau-père-a* (garai berean) herriaren ordezt, *belle-fille-a* (garai berean) *sühiaren ordezt, beau-fils-a, gendre-ia*

Ofizialtasuna ta komunikabideen jabetasunak, frantsesari izugarriko indarra ta abantaila ematen dizkio (Ameriketako Akadian ez tuena) eta euskaldunari psikologia konpletsu handia. Zuberoan, behintzat, herri gehienetan, euskaraz zuzentzen natzaienean, nonbait baserritar itxurarik ez baitut, erantzuna frantsesez, bereziki azken hizkuntza hori gaizki menderatzen dutenean eta ezagutzen ez nautenean. Psikologia trinkadurak, blokaiak ugari dira hizkuntza bat eman behar denean baina gurea bezala diglosia harrigarrian bizi denean, benetako mendi piñak eraikitzen dira.

Esate baterako, ama hogeit urteak nituela, euskaraz hitzegiten hasi zitzaidan, ikasi nuelakotz, baina amak euskaraz jarraitu behar bazuen ez nion euskaraz erantzun behar bestelan bera frantsesez hasten baitzen. Beste adibidez, auzoko etxekandere zaharrari esaten diodanean aitagiharreba ta amagiharreba bakantzetara Santa Grazira etorriko direla, nere esaldia zuzenduz, dio *A! bai, beau-père eta belle-mère-a jinen zaitzü*; beste zuberotar askok gazte denboran erabiltzen genituen hitzak erabiltzen ditudanean, frantses hitzarekin zuzentzen naute, edo *manexez* (beste euskalki batean) berba egiten dudala diote.

## Azkena.

Horiekin oroekin, gure Zuberoako sasieta inguru txipia egitera eraman zaituztet. Orain bukatzeko Santa Grazira jarraiki behar nauzute; herri hortan zahar zaharrek lau hizkuntza ezagutzen dituzte: bearnesa, euskara, frantsesa ta gaztelania, denek Españian nahiz Naparroan «quesero» bezala egonaldi bat eginik, ta beste denbora Biarnon morroin; holako gizonek ez zituzten ustegabeen hizkuntzak nahasten. Gaur Petiri Prebenda Salaberri entzuten dudan bezala, humorearen arauera hizkuntzak erabiltzen: parre gura duenean hasten zait, apur bat ulertzen dudan bearnesean, baina hasarre dagoenean gaztelaniaz berdin. Gaur, ordea, herriko gazteek kolejiotan egonik ere gutiago dakite eta laister monoglosira goaz Zuberoan konpletsu hori galtzen ez baldin bada. Asko dira gazteak hizkuntza batean hasi eta bestean bukatzen dutanak eta nahasketa hori euskara bezala hartu behar balitz, haurko nagusi gazte batek darabiltzan «parce que» «bien que» «cependant» malheureusement ta «commencement», euskal hiztegieta sartu behar genituzke, entzuten baitira.

Orai, erakasle batek zer egin lezaken jakiteko irakasle ibilkari batek zer egin zuen, zer lortu zuen entzun dut Amikuzeko baten ahotik «blokatuak ziren Mithiriñako haurrak bosgarren ikasgaietik landa desblokatu ditut, ez dire gehiago eskuararen ahalge izan»; Santa Graziko oraingo frantses eskolan maisu berria daukate, bearnesa da, hurrei esan diete, nik frantsesa irakatsiko dizuet eta zuek euskara; beste urtean maisuak errekreo garaian euskaraz hitzegitea debekatzen zuen baita aurridden artean ere eta haurrak ez ziren gogo onez eskolaratzen. Aurten berriz, gauza batez konturatu naiz, auzoko haurrak etxekoei *papa*, *maman* esatea utzirik *aita* eta *ama* deitzen dituela.

Hortan ikusten dugu nola gure herrian baloratzen den hizkuntza ezteela gehienetan bihotzekoa, baina ogipidezkoa eta baliman beste hirur hizkuntzen aukera zenean, euskarak ez zuela gaurko monoglosia bortxatuarekin bezala sufritzen.

Honekin aski esan dut gure Zuberoako euskara ikertu nahi luketenen argi txipia eskainiz.

## SUMMARY

This eastern dialect of basque is known, as a literary form, since the XVI. century. We can recognize in the language of Zuberoa (french: La Soule) stratum taken from three official roman languages; and their popular forms: spanish-navarrese romance, gascon-bearnese, popular and literary french.

The old *romance navarro* has been, with latin, the dominating language of Zuberoa during part of the middle-age, giving to our dialect words of psychology, like (*asmatü*: asmar (r. n.), *arrenküra*: rencura (r. n.) of laws vocabulary (*abogatü*: abogado (r. n.) «barrister», *sozio*: socio «member» *pleteiatü*: pletear «to plead»). Later, sheperds, labourers brought us from spanish-speaking Ribera the majority of swears (*me cago en*

...) and a lot of despise words (*burro* «ass», *viejo* «old» and so on..), to express the intensity of a feeling (*miedo* «shame»), without exclusion of the native expression.

In the second group, at the beginning *gascon* is showing in, like official written language, which gave us lawyers words (*proses* «law-suit» *dret* «right») and psychological doubles (*adret*: skilful, *perfidius*: perfidious); the bearnese dialect, by the popular way brought us, insults and swears (*bilh de puta*: hore son). the second dialect, is nowadays used to carry smiles in the theatre and provoke laughs in Carnival.

The last coming language, imposed by the one-language school, and sometimes by the parents a little time before going to school, invades the politeness semantic field (*merci*, *pardon*, *bonjour*) and the relatives vocabulary (popular french: *taty* «aunt» *tonton* «uncle», *mamy* «granmother») and overall we observe an invasion of modern vocabulary. Whenever, we notice a protective reaction from school-masters and cultural associations *Sü-Azia*, *Bedaro*, *Uhaitza*.

## RESUMEN

El habla vasca suletina del grupo oriental es un dialecto literario, conocido desde el siglo XVI; ha sufrido las influencias de tres lenguas romanas oficiales y podemos reconocer las capas y etapas de préstamos procedentes de tres grupos: castellano-romance navarra, gascón-bearnese, francés literario y popular.

El romance navarro antiguo fue, con el *Latín*, idioma dominante de Zuberoa en el medioevo; palabras usadas por Gonzalo Berceo han pasado a nuestro vocabulario psicológico (*asmatü*: asmar, *arrenküra*: rencura, etc..) jurídico (*abogatü*: abogado, *sozio*: socio, *pleteiatü*: pletear..) Más tarde pastores y jornaleros que bajaban a trabajar hasta la Ribera, introdujeron juramentos castellanos (*me cago en ..*) y palabras despectivas (*burro*, *fracaso*, *fallo*, *viejo*). Estas últimas palabras no forman parte del idioma, se emplean en caso de cólera o para expresar la intensidad de un sentimiento en Alta Zuberoa.

El segundo grupo empieza con el gascón, que llega a ser el idioma oficial de Zuberoa desde el siglo XVI hasta el Siglo XIX, dándonos préstamos jurídicos (*proses*: pleito, *dret*: derecho) y *dobletes* psicológicos (*adret*/sotil «adiestro», *perfidius*/maltzur «perfidio») El bearnese, dialecto occitano, aparentado al gascón penetra por vía popular; nos dará injurias (*kauke*: gorrón..) juramentos (*bilh de puta*: hijo de puta). Es el idioma del cómico teatral y de carnaval.

El francés, último llegado, se aprende a veces en casa un poco antes de ir a la escuela monolingüe; por eso, invade el campo de la cortesía (*merci*, *pardon*, *bonjour*) y la expresión de la parentela con palabras francesas populares (*Tati*: tía, *tonton*: tío, *mamy*: abuela, *beaupère-a*: suegro) sin contar con la invasión del vocabulario moderno técnico. Una reacción se manifiesta por parte de los maestros de escuela y asociaciones culturales tal como *Sü-Azia*, *Bedaro*, *Uhaitz* etc..

## RÉSUMÉ

Ce parler basque oriental, attesté dès le XVI<sup>e</sup> s. comme dialecte littéraire de l'euskara, a subi l'influence de ses trois langues romanes officielles et nous pouvons y reconnaître les trois couches d'emprunts, des trois groupes: castillan-romance, gascon-béarnais, français littéraire et populaire.

Le Romance navarrais a été, avec le latin, una des langues dominantes de Zuberoa (Soule) au moyen-âge; à la langue navarraise nous avons, sans doute emprunté des termes de psychologie (*asmatü*: asmar, *arrenküra*: rencura etc..) juridiques (*abogatü*: abogado, *sozio* socio, *pleteiatü*: pletear). Plus tard ce sont les bergers et journaliers qui

travaillaient dans la Ribera, qui ont introduits la plupart des jurons castillans du dialecte (en *me cago en* ...) et de nombreuses expressions de la véhémence et du mépris (*burro*: âne, *viekbo*: vieux, *fracaso*: échec etc...) Le castillan ainsi utilisé n'est pas intégré dans la langue, comme les termes d'origine romance, et l'idiome espagnol est employé dans l'expression de la colère et de l'outrance, au lieu du terme basque.

Le second groupe est celui du gascon, langue officielle écrite de Zuberoa du XIV<sup>ème</sup> s. au XVI<sup>ème</sup> s. qui nous a donné des termes juridiques (*proses*: procès, *dret* droit, *bakada*: droit de pacage etc..) et des doublets psychologiques: *adret/sotil*, «adroit» *perfidius/maltzur* «perfide» Par contre le béarnais, langue de communication entre le XVI<sup>ème</sup> s. et le XIX<sup>ème</sup> s. nous donne des termes injurieux (*kauke* «parasite» des jurons *hilb de puta* «fils de putain», c'est la langue du comique au théâtre.

Le français, enseigné parfois par les parents, juste avant l'école envahi le domaine de la politesse (merci, pardon, bonjour) et l'expression de la parenté (Taty, mamy, tonton, beau-père-a etc..) sans compter les vocabulaires technique, administratif etc. Une réaction se dessine par l'action de maîtres d'écoles et d'associations culturelles telles *Sü-Azia*, *Bedaro*, *Uhaitza* etc..